

Harrera bizkorreko gelak etorri berrientzat



MALORES ETXEBERRIA



PAULA ESTÉVEZ

Eroriko askoren artean badira lorpenak ere. 35 urte inguruko ama gazte batek galdetzen zidan aurreko batean nola arraio lortzen zuten beraien eskolan etxean euskara jaso ez zuten ikaskideek etxetik euskaldunak ziren neska-mutikoek bezain ongi ikastea eta hitz egitea euskaraz. Eskolan haur asko zeuden etxe ez euskaldunetakoak, ez ziren ama-hizkuntzaren arabera taldekatzen, eskola herri eta inguru erdaldundu batean zegoen kokatua, eskolaz kanpoko jarduera askok herrian gaztelaniaz funtzionatzen zuten... Zer pentsatua eman zidan galderak, eta orduko arrakasta haren gakoez jardun genuen. Gelako ikasle kopurua ote zen, taldekatzeko sistema, gurasoen konpromisoa, irakasleen militantzia, erabiltzen zen pedagogia, komunitate haren indarra... Denetik izango zuten pixka bat, baina egia da lortzen zuela haur eta gazte haiek euskalduntzea.

Gaur nekez ari da inguru ez oso euskalduneko eskola bat haurrak euskalduntzen, eta ez da erraza arrakasta ezaren gakoak aletzea. Denetik izango da pixka bat, baina egia dena da ez duela lortzen. Iniziatiba bai publiko eta bai borondatezko batzuk ezagutu ditut azken urteotan han-hemenka, haurren euska-

razko gaitasuna hobetzen laguntzeko. Gehienak, edo denak, familia etorri berrietako haur eta gazteei zuzenduak eta denak eskola orduz kanpo eskainiak. Ekimen horiekiko errespetuz eta miresmenez (ezagutzen baititut herrira uda partean etorritako haurrei beren etxe partikularretan eskolak ematen dizkieten militanteak ere), bospasei ordu eskolan ematen dituzten haurrei beste ordubate edo dena delako esfortzua eskatzea ez dakit egokiena ote den.

Errefortzu horien harira interesgarria iruditu zait Katalunian egin duten esperientzia bat. Programa pilotu bat izan da, pasa den ikasturte honetan Bartzelonako zortzi ikastetxe publikotan martxan jarri dutena. Ekainaren hondarrean ekimenaren ebaluazioa egiten zuen artikulua irakurri nuen prentsan. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira denak, eta programa nerabe etorri berriei eskaini zaie, katalanaren ezagutza gutxienekoa eskolan hasi aurretik lortu dezaten. Sei hilabeteko programa izan da, irailetik otsailera bitartekoa, eta bertan katalana modu intentsiboan irakatsi zaie, baina ez sintaxia eta gramatika, baizik eta nagusiki landu dutena da ulermena, ahozkoa eta idatzizkoa, eta mintzamina. Horrez gain,

Kataluniako kultura eta ohituren ezagutza ere jorratu dute eta, hizkuntzaren irakaskuntzan espezializatutako tutoreez gain, izan dituzte migrazio prozesuetako dolu eta egoera zailtan adituak diren laguntzaileak ere. "Aules d'acollida accelerada" (Harrera bizkorreko gelak) izeneko inizatiba hori ongi baloratu omen dute, oro har, bai ikasleek beraiek baita tutoreek ere, eta hastera doan ikasturtean esperientzia ikastetxe guztietara zabaltzeko asmoa adierazi du Hezkuntza departamentuak. Kontrako iritziak ere badira: harrera gelak integrazioa kalte-tzen duela diote hainbat soziologok, eta hobesten dutena da errefortzu intentsiboan ohiko gelan bertan ematea.

Gurera etorrita, gogorra da 11-12 urtetik aurrerako adinean iristen diren ikasleak bat-batean euskarazko eredu-ko eskola batean sartzea, ikasketak normaltasun batez jarraitu ahal izatea eta ikastaldean integratzea. Eta ezintasun hori askotan konpontzen da etorri berria A eredu-ko eskola batera bidalita, euskaraz ikasteko eskubidea urratuta eta hura euskalduntzeko aukera galduta.

Planteamendu desberdinak esperimintatu beharko dira gako berriak biltzeko. ●